



MENDAROKO
UDALA

Prozedura: Ordenantza Fiskala aldatzea.

Gaia: Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala aldatzea.

ALDAKETA PROPOSAMENA PROPOSAMENA

Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren 7. Eranskinean, ondasun publikoen erabilera deitutakoan, ondorengo paragrafoa gehitzea proposatzen da:

“Ez dute tasa ordaindu beharrik izango irabazi asmorik gabeko elkarte, eragile edo nortasun juridikorik gabeko kolektiboek.

Elkarte batek irabazi-asmorik ez duela ulertuko da bere estatutuetan hala agertzen denean eta inolako jarduera ekonomikorik garatzen ez duenean, edo, hori garatzean, jarduera horren fruitua bere estatutuetan ezarritako interes orokorreko helburuak betetzera bakarrik bideratzen denean, zuzeneko edo zeharkako mozkinak bazkideen edo hirugarrenen artean banatu gabe. Eragileen zein bizilagunen kasuan, irizpide berdinak aplikatuko dira, nahiz eta taldeak Estatuturik ez izan.”